

# berria



«Nire elkarriketak ipuinak bezalakoak dira»

Bego del Teso • Kazetaria eta kritikaria

AGENDA • 27



Milaka lagun elkartu ziren atzo Eskoziako hiriburuko kaleetan. ROBERT PERRY / GFC

## Gazteek hartu dute Glasgowko goi bilera

Klima larrialdiaren aurkako ostiraletako nazioarteko protestek COP26aren inguruan izan dute erdigunea • Ekintzak eskatu dizkiete agintariei

**Ekozidua.** Nazioartean jazartzeko bidean

MUNDUA • 14-15

## Hornikuntza arazoek moteldu egin dute industriaren jarduera

Iraileko datuen arabera, Alemanian eta Frantzian murriztu egin da ekoizpena • Euskal Herrian, hazten ari da sektorea, baina apalago • Autogintza da gehien kaltetua

EKONOMIA • 12

### Nikaraguako bozak iruzurra direla salatu dute Costa Rican erbesteratuta dauden oposizioko kideek

Presidentetzarako eta parlamenturako hauteskundeak egingo dituzte bihar, eta Ortega irabaztea espero da.

ELKARRIZKETA

**Dulce Porras, Unamos alderdiko kidea:** «Ortegak alde egitea nahi dugu, baina era zibikoan lortuko dugu»

HARIAN • 2-3

### Sarek urtarrilaren 8an egingo du euskal presoek eskubideen aldeko martxa, Bilbon

EUSKAL HERRIA • 6

### Uxue Apaolazak 'Bihurguneko nasa' ipuin liburua aurkeztu du

KULTURA • 23

### Zirku eskolak. Ariketa eta artea ikasgai

BIZIGIRO • 31-39



### Osasun ziuertagiria uztailaren 31ra arte luzatzeko aukera izanen du Frantziako Gobernuak

Azaroaren 15ean iraungiko da agiria, baina Asanbleak baimena eman dio Eliseoari epea luzatzeko.

EUSKAL HERRIA • 10



# Bizigiro

## Zirku eskolak, Itzulipurdi bat orain artekoari

Zirkua boladan dago. Geroz eta eskola eta ikasle gehiago daude. Zirkua ikas daiteke, eta eskolek orain arteko «hutsunea» bete nahi dute. ■ 35

### 32 Merkataritza

Aldaketak bazar txinatarretan

### 34 Zinema

'Cry Macho', Clint Eastwooden agurra?

### 36 Elikadura

Elkarriketa Aitor Etxenikeri (Kromatiko)





Boladan dago zirkuia, eta geroz eta gehiago dira zirku eskolak eta ikasleak. Diziplina ezberdinak lantzen dituzte, eta adin guztietako jendeak egin du urratsa –emakumezkoak dira gehienak–. Zilipurdi bat eman nahi diote zirkuaren orain arteko iruditeriari, eta ikasketan zegoen «hutsunea» bete.

## Ongi etorriak zirku eskolara

**Enkoltz Teberia Sarriegi**

**M**alaharismoa ez dira berez sortzen. Soka gaineko oreka lardu egiten da. Akrobaziak erakli. Han goiko oihalaren korapiloak estutu. Sarrerik gabe aritu. Zilipurdiak zilipurditu. Trapezioaren bertigoa eraiti. Emozioak eszenatokian erantzi. Sudurrari gorria erantzi. Eta zirkuia ikasi.

Bai. Ikas daitezke zirkuia. Geroz eta gehiago dira eskolak, eta geroz eta gehiago ikasleak. Boladan dago zirkuia. Zirkuia ez baita zirkuia bakarrik. Ez orain arte ezagutu dugun zirkuia bakarrik. Zirkuia bai baita diziplina arteko elkargunea, sentimenduak adierazteko bidea, frustrazioei eta beldurrei aurre egiteko tresna, araurik eta zurruentasunik eza, eta adinik gabeko jarduna. «Gure tailer batera 80 urtetik gorakogizton bat etorri zen behin. Konturatu nintzen ezkatatu egiten zela. Harengana joan nintzen, eta galdetu nion: 'Laguntza behar duzu?'. Erantzun zidan: 'Ez, ez, diabolokarekin jolasten ari naiz, zeren mardoa gustatzen zait. Etxean badut bat, baina gaztea nintzenean nesken jolasa zenez, losa ematen dit'. Hantxe zegoen gizona ezkatatuta. Truko pare bat irakatsi genitzon, eta pozarren gelditu zen». Elsa Pamparacuatrok apurtu du adinaren tabua. Txitatoki Urdaibai zirku eskolako kideetako bat da bera.

Gauegiz: Arteagako (Bizkaita) baserri zahar bateko kortan abiatu zuten proiektua Keiko Salvadorek eta Pamparacuatrok berak, 2014an. «Ate magiko bat ireki genuen, bai fisikoki eta bai metafisikoki ere, ate zoragarri bat: antzinako kortaren atea», kontatu du Pamparacuatrok. Auzolanean

erakli zuten hura, eta sekulako onarpena izan zuen herrian, eta inguruetan. Txiki gelditu zitzaten, eta Gernika-Lumora (Bizkaita) aldatu ziren. «Estanda baten modukoa izan da. 50-60 ikasle genituen lehen, eta ia 250 ikasle gara orain. Urdaibai herri guztietaatik eta urrunagotik ere badatoz. Eta sinesten dugu benetan zirku eskola bat dugula».

Adina ez da oztopo, eta maila ere ez. Norberak jartzen dio neurria egin nahi duenari. Lan ildoasiko dituzte Txitatokin. Badaude psikomotrizitatea landu nahi dutenak bakarrik, badaude zirkuia eskolaz kanpoko ekintza gisa bizi dutenak, badaude jardura profesionalera bideratutako tailerrak eta ikastaroak, eta laborategi bat ere bai zirkuari buruz hausnartzeko. Hazitoki izeneko ekinhide bat ere badute behar bereziak dituzten pertsonentzat. Pamparacuatrok musikako eskolekin konparatzen du zirku eskolen jarduna: «Musika eskoleta ere adin eta helburu ezberdinetako jendea jotzen da. Profesionalki aritu nahi dutenak dira batzuk, besteek plazer hutsagatik ikasten dute musika. Hori zen gure helburua. 3 urtetik hasi eta 50 urterainoko ikasleak dauzkagu, eta gehienak emakumezkoak dira».

Adierazpen fisikoa eta artistikoa mugetan dabil dirlindan zirkuia. Eta bakoitzak bere tokia topatzen du. Hori dio Pamparacuatrok: «Fisikoaren eta artistikoa arteko marra oso fina da: sentimenduak daude batetik bestera. Batzuk fisikoa lantzen dute, baina euren arlo artistikoa topatzen dute bat-batean».

**Hemen, eta euskaraz**

Zirkuko artista izatea bada ofizio bat. Hori nahi du aldarrikatu Koldo Arakistainek: «Hemen ez dago ikasketa ofizialik honen inguru-

an. Hezkuntzan ez da sustatzen, eta orientatzaileei iruditzen zaie zeure burua pobrezia kondentzea dela artistik hitzitzea. Hiru pilotarekin malabartsuak noiztik egiten ote dira... Baina nor daki hori ikasgin daitezkeela, lanbide bat dela, irteera bat izan daitezkeela?». Adunako (Gipuzkoa) Zirkuola zirku eta arte eszenikoen lantegiko kidea da Arakistain, Irati Gonzalez eta Garazi Pascualekin batera. «Nahi ge-



**Batzuk arlo fisikoa lantzen dute eskolara, baina, bat-batean, euren arlo artistikoa topatzen dute hemen»**

**Elsa Pamparacuatro**  
Txitatoki zirku eskolako kidea (Gernika)

**«Askok kanpoan ikasi behar izan dugu zirkuia. Nahi genuena zen atzetik datozenek hautu hori egin beharrik ez izatea»**

**Koldo Arakistain**  
Zirkuola zirku eskolako kidea (Aduna)







4



5



3

1 1 **Txitatoki.** Gemika-Lumoko zirku eskolako haurrak, herenegun, ahalegin batean.  
2 2 2 **Zirkuola.** Adunako zirku eskolan, helduen txan da izaten da ostegun iluntzeetan.

**ARGAZKIAK: MONIKA DEL VALLE-GORRIKARUBIO / FOKU**

diak, eta %90 inguru, berriz, emakumezkoak. «Ahaltuntzea asko lantzen da zirkuan, beldarren aurrian egin beharreko lanketa, zirkua bere bidez», naharmendu du Gonzalezek.

**Eskolen saretzea**

Zirkua erlazio lotutako ikusketa espezializatuak eta hezkuntzari lotutakoak dituzte irakasle gehienek. EZE Euskal Zirku Elkartearen daude saretuta zirkuan ari diren langileaketa eskolak, eta Espainiako Estatuan Circoredizzeneko sarean biltzen dira elkarteak. «EZEren webgunea ari gara orainxe diseinatzeko, norbanakak ez ezik konpainiak ere ager daitezten eta espazio guztiak saretu daitezten», jakinarazi du Arakistainek.

Ari dira zirkua «duntzeko» ahaleginetan, baina «errekonoizimendua» da eskatzen dutena: «Bi urterako diru laguntzak ematen dituzte ekotzipen eszenikora, baina ez Espainiako Estatuan eta ez Euskal Herrian zirkua ez dauka bere ildo propioa. Beti esku behar dugu laguntza edo antzerkirako edo dantzarako, baina zirkua beste arte eszeniko bat da, eta horren errekonozimendua bultzatu nahi dugu».

Kontatu dute «tradizio handi-goa» dutela horretan Frantziako Estatuan, ikastetxeetatik eraman dituztela haurrak zirkuko eskolara, egin daitezke elia bigarren hezkuntza bat zirkua hideratuta, baina goi mailako ikasketak ere, doktoretzaraino, zirkua inguruetan. Ipar Euskal Herrian, Baitonako Oreako zirkuko eskolaren jarduna nabarmendu dute.

Boladan dago zirkua, eta izan du horretan zerikusia Gure Zirkua ikuskizunak. Iker Galartza zirkuko kideak gurasoen eta seme-alaben interesa sumatu du: «Antzematen da emanaldiaren amaieran hainbat hitz egiten duzunean, eta haurrak hasten direnean tximinoarena egiten lkerrek ikus dezan zer nolako abilezia duten». Galartzak dio «lan gogorra» dela zirkuko, hori ere irakatsi egin behar dela, baina egin daitezkeela zirkuan bide «polit» bat: «Zirkua bada konfiantza ere: bada zeure burua atzeraka erortzen uztea eta lagunak heldu egingo dizula jakitea».

nuena zen zirkua ikasteko aukera bat eman: hemen eta eskaraz. Nik kanpora joan behar izan nuen zirkua ikastera, eta, bueltatuta noan, nahi nuen beste haterk hau-tu hori egin beharrik ez izatea», azaldu du Arakistainek.

Irati Gonzalez kirolaren mundutik gerturatu da zirkura. Gimnastika artistikoa egin zuen 16 urte zituen arte, SHEE Soin Hezkuntzako ikasketak egin zituen gero, Irakasle ikasketak ondoren, eta zirkura jatzu azkena. «Oso baliagarria da zirkua. Gaur egungo arazo asko lantzeko balio du. Aurrekoan, ama batekin komentatu nuen nola emozioak adierazteko bidea den zirkua bere semearentzat. Frustrazioei, beldurrei... aurre egiteko tresna oso baliagarria da. Ez bakarrik dohain fisikoak dituenarentzat. Inklusio puntu bat ere badago, non dohain horiek dituenak besteak laguntzen dien ikasten».

Arakistainek dio «alternatiba bat» ere badela zirkua, «taldeko kirola edo kiroldegiko eskaintza gustatzen ez zaien horrentzat». Eta gauza askoren «bilgunea» ere badela zirkua. «Sormenari lotuta dago, fisikoari eta adierazpenari. Zirkuan badago antzerkia, badago dantza, akrobazia, abilezia ezberdinak... eta hori guztia eszenatoki batean biltzen da zirkuan. Lehen, karpia batean egiten zen, orain, geruz eta gehiago, aretoetan egiten da».

Gonzalezek ere kirolaren gaiari



**Frustrazioei, beldurrei... aurre egiteko tresna oso baliagarria da zirkua. Eta ez da bakarrik dohain fisikoak dituenarentzat»**

**Irati Gonzalez**  
Zirkuola zirku eskolako kidea (Aduana)

**«Zirkua bada konfiantza ere: zeure burua atzeraka erortzen utzi eta lagunak heldu egingo dizula jakitea»**

**Iker Galartza**  
Gure Zirkua zirkuko kidea

en gaizki edo ongi egin dakorik: dagoena da zure moduan egitea, eta zuk adierazi nahi duzun hori adierazteko bidea bilatzea. Ez da horren zurruna, ez dago arau batzuen barnean, denak balio du, eta hori deskubritzea izugarria izan zen niretzat».

Eta ari dira gehiago ere hori deskubritzen. Urtebete egin dute Zirkulakoek. 170 ikasle inguru dituzte, helduak dira horietatik er-